

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: Irene Arrarats Lizeaga

DATA: 2020ko urtarrilaren 8tik otsailaren 1era

AZALPENA:

- **Mamia:** Idaztea ofizio gisa, artisautza gisa. Arkitektua izateko, landu dezagun ingeniaritza pixka bat aldez aurretik. Eskulangilearen ikuspegia, hitzen artisauarena: nolakoak diren hitzaren adreiluak, nola egiten diren eta nola konbinatu daitezkeen.
- **Helburua:** Gogoan erabiltzea eta lantzea zer hartu behar genukeen kontuan XXI. mendearen hasieran euskaraz idazteko, testu-motak eta euskarriak kontuan hartuta. Betiere, idazteko orduan erabaki egokiak hartu ahal izateko komunikazio-egoeraren arabera.
- **Metodologia:** Gaiak eta adibideak planteatuz, gogoeta egin idazkuntzaz, taldean eta iritziak trukatzuz. Gogoeta hori praktikarako baliagarria izan dadin, ariketa batzuk egin, batzuk banaka eta beste batzuk taldeka, testuak sortuz eta besteren testu batzuk aztertuz.

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

1. Saioa: Idatzi, ala ez idatzi (I)

Idazkuntzaren eta estilistika lantzen: testu pragmatikoak, testu literarioak.
Idazteko teknika oro har, eta idazteko teknika euskaraz.
Komunikaziorako estrategia pragmatiko batzuk landu. Helburura egokitzen jakin. Esan nahi duguna eraginkor esan.

2. Saioa: Idatzi, ala ez idatzi (II)

Idazkuntzaren eta estilistika lantzen: testu pragmatikoak, testu literarioak.
Idazteko teknika oro har, eta idazteko teknika euskaraz.
Prosaren zero gradua. Hortik hasi, eta sormenak nahi duen lekuraino.

3. Saioa: Idatzi, ala ez idatzi (III)

Idazkuntzaren eta estilistika lantzen: testu pragmatikoak, testu literarioak.
Idazteko teknika oro har, eta idazteko teknika euskaraz.
Prosaren zero gradua. Hortik hasi, eta sormenak nahi duen lekuraino.

4. Saioa: Idatzi, ala ez idatzi (IV)

Idazkuntzaren eta estilistika lantzen: testu pragmatikoak, testu literarioak.
Idazteko teknika oro har, eta idazteko teknika euskaraz.
Prosaren zero gradua. Hortik hasi, eta sormenak nahi duen lekuraino.

5. Saioa: Euskara batua: harrotasuna eta aurrejuzguak

Zer den euskara batua, eta zer ez. Tokiko batuak, euskalkiak, erregistroak eta beste nahaste berraste batzuk.

6. Saioa: Euskara batua: harrotasuna eta aurrejuzguak

Zer den euskara batua, eta zer ez. Tokiko batuak, euskalkiak, erregistroak eta beste nahaste berraste batzuk.

7. Hizkera sexista

Euskaraz, denok gara itzultzaile: hori zertan den, eta nola atera onik.

Euskaraz maskulino generikorik ez dagoenez, zertan da euskarazko hizkera sexista?

8. Saioa: Itzulpen noranahikoa

Aztertzea zenbateraino garen hizkuntza gutxituen hiztunak etengabeko itzultzaileak, horrek zer ondorio dituen, eta nola bihurtu albo-kalteak bertute.

1. SAIOA: Idatzi, ala ez idatzi (I).

- **Helburua:** Komunikaziorako estrategia pragmatiko batzuk landu. Helburura egokitzen jakin. Esan nahi duguna eraginkor esan.

- **Gaiak:**

- o Idaztea: teknika bat. Ikas daiteke, ikasi egiten da. Ofizioa: artelan bat egin gabe ere, testu txukun bat gutxienez. Idatzi guztiak ez dira sorkuntza aldetik artistikoak: aski dute txukunak, gustagarriak izatea. Idatzi pragmatikoak, ez-fikzioa.
- o Argitasuna, koherentzia, dotoretasuna.
- o Arrasto batzuk eman: komunikaziorako estrategia batzuk landu. Helburura egokitzen jakin. Gaitasun estrategikoa landu. Irudi ona eman. Esan nahi duguna eraginkor esan. Konfiantza sortu.
- o Prosaren zero gradua eta baliabide erretoriko batzuk.
- o Tradizioa eta aldatu beharra: kontrakarrean baino gehiago, alberdania. Tradizioaren etena, horren ondorioak, eta ondorioei aurre egiteko estrategiak.
- o Ahozkoa da aurrena; idatzia haren itzala baino ez. Literaturaren hasiera. Idatzia sofistikatu ematen du, baina sinpleagoa da berez.
- o Tradizioa eta aldatu beharra: kontrakarrean baino gehiago, alberdania.
- o Testuen arazo nagusiak.
- o Abiapuntua eta tresnak: Villasante eta itzultzaile neuronaleraino.

- **Ariketa: Hitz deabruzkoak (I)**

Ambrose Bierceren *Deabruaren hiztegia* oinarri hartuta, hitz batzuk aukeratu, eta hurrengo egunerako etxeko lanak: haien definizio literario eta jolastia egin, nor berea. gero konparatu Biercek eta beste kideek egindakoekin.

2. SAIOA: Idatzi, ala ez idatzi (II).

- **Helburua:** Komunikaziorako estrategia pragmatiko batzuk landu. Helburura egokitzen jakin. Esan nahi duguna eraginkor esan.

- **Gaiak:**
 - o Komunikazio eraginkorra edo efikaza.
 - o Komunikazio-estrategiak: estrategia pragmatikoak.
 - o Zertan den imitatzen dugun erdara.
 - o Kohesioa eta antolamendua.
 - o Funtzio informatiboak: galdegaia, mintzagaia, gehikuntza, tartekiak, ezezko esaldiak.
 - o Puntuazioa.
 - o Hitz iragarleak: irakurlearen gidak.
 - o Kalko morfosintaktikoak.
 - o Lokuzioak: a ze marroia!
 - o Klixeak eta jatorkeriak.
 - o Anbiguotasun nahi gabeen nahigabeak.

3. SAIOA: Idatzi, ala ez idatzi (III)

- **Helburua:** Hizkuntza-irizpideak lagungarri eta sormenerako akuilu izan daitezzen lantzea, estugarriak izan beharrean.

- **Gaiak**
 - o Hasiera indartsuak
 - o Labur... edo ez.
 - o Hasiera
 - o Idatzi izenekin eta aditzekin (adjektiboak neurrian).
 - o Paradoxak.
 - o Egitura paraleloak: "ez da sekula hilko... ez da sekula hilko".
 - o Zaindu erritmoa: monotoniarik ez, egiturak aldatuz joan
 - o Klixerik ez (kazetaritza, klixeen habia).
 - o Ezustea: adizlagun harrigarri bat, paradoxa bat...
 - o Eufemismorik ez.
 - o Fikzioa eta ez-fikzioa, uste baino antzekoagoak.
 - o Aliterazioak, musikaltasuna, kakofoniarik ez (*araketa*, ez *arakaketa**). Fonoestetika.
 - Kantuen itzulpena.
 - o Bukaerak.

- Hitzik garrantzizkoenak, bukaeran.
- *Finis coronat opus.*

- **Ariketak:**

Indartsu hasi: Itzuli, edo izan zaitezte Melville! (I)

- Izan zaitez Melville: *Moby Dick*. "Call me Ishmael". Ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez: konparatu bertsiio guztiak, eta egin etxeko lanak: proposatu euskarazko egokiena hurrengo egunerako.

Hitz deabruzkoak (II)

- Ambrose Bierceren *Deabruaren hiztegiko* hitz batzuekin etxean egindako definizio literario eta jolastiak irakurri. Konparatu Biercek eta beste kideek egindakoekin.

4. SAIOA: Idatzi, ala ez idatzi (IV).

- **Helburua:** Hizkuntza-irizpideak lagungarri eta sormenerako akuilu izan daitezen lantzea, estugarriak izan beharrean.

- **Gaiak**

- o Bukaerak.
 - Hitzik garrantzizkoenak, bukaeran.
 - *Finis coronat opus.*
- o Pasiboa. Ez da oso idiomatikoa euskaraz, baina izan bada.
- o Hitz-jokoak. Bai, baina neurrian.
- o Kontuz abstrakzioekin: hobe konkretura jotzea.
 - Makroan: aurpegia jarri ideiei.
 - Mikroan: aditz-estiloa hobe, izen-estiloa baino.
- o Ideia abstraktuak.
 - Azaldu, objektuak izango balira bezala.
 - Konparazioak, analogiak (kasu tipikoa: neurriak).
- o Aditz-estiloa: dinamikoagoa, idiomatikoagoa, beroagoa.
- o Izen-estiloa: estatikoagoa, txostengintzako, hotzagoa.

- **Ariketak: Indartsu hasi: Itzuli, edo izan zaitezte Melville! (II)**

- Izan zaitez Melville: *Moby Dick*. "Call me Ishmael". Etxean landutakoa aztertu eta komentatu denon artean: zein da euskarazko egokiena?
- Tolstoiren *Anna Karenina*. Bertsiio batzuk konparatu: euskarazkoak eta gaztelaniazkoak (jatorrizkoak zehatz zer dioen jakin gabe, errusierazkoa delako).

5. SAIOA: Euskara batua: harrotasuna eta aurrejuzguak (I)

- **Helburua:** Argi eta garbi edukitzea zertan den batua, zer kabitzen zaion barruan, nola

elikatzen duen norberaren adierazpidea, nola mardultzen duen euskal kultura, nola estandarretik kanpoko ere estandartu daitekeen.

- **Gaiak**

- o Zer hizkuntza hilko diren ez: zein biziko diren.
- o Hizkuntza hegemonikoan, estandarra; indigenenean, txokokeriak.
- o Tokiko batuak.
- o Non daude irakurleak?
- o Azula eta Gatibu.
- o Gaskoi izateko bidean? Hil arte bizi.

- **Ariketa: Pessoa gogoan, 'Olerkaria itxurazale hutsa duzu'**

Idatzi narrazio bat, beste idazle baten estiloa antzeratuz: Eider Rodriguezen estiloa. Etxetik egina ekarri dute. Bakoitzak berea leitu, eta denen artean aztertu.

6. SAIOA: Euskara batua: harrotasuna eta aurrejuzguak (II)

- **Helburua:** Argi eta garbi edukitzea zertan den batua, zer kabitzen zaion barruan, nola elikatzen duen norberaren adierazpidea, nola mardultzen duen euskal kultura, nola estandarretik kanpoko ere estandartu daitekeen.

- **Gaiak**

- o Sormen anonimoa.
- o Euskal sena?
- o Bernardo Atxaga: errepikapena, kokapena eta erresonantzia-kaxa.
- o Estandarizazioa, bukatu gabe.
- o Hizkuntza eta kultura kolonizatuak.
- o Estandarra eta zirrara.
- o Estandar nazionala.

7. SAIOA: Hizkera sexista

- **Helburua:** Euskaraz ere badira hizkera sexista darabiltzen testuak. Zertan dira sexistak? Non ezkututzen da halako kutsua? Egiazko adibideak horren erakusgarri.

- **Gaiak**

- o Sexismoa hizkuntzaren sisteman.
- o Euskararen ezaugarri *generikoak*.
 - Gramatikaren kontrako berrikeriak.
 - Lexiko markatua

- Hitanoa
- o Sexismoa, hiztunen diskurtso-moduetan.
 - Ikuspegi androzentrikoa
 - Tratu asimetrikoa
 - Ikusezintasuna
 - Estereotipoak
 - Esentzialismoak
 - Antonomasia
 - Markatu behar selektiboa
- o Komunikazioa, hizkuntza baino gehiago.

8. SAIOA: Itzulpen noranahikoa

- **Helburua:** Aztertzea zenbateraino garen hizkuntza gutxituen hiztunak etengabeko itzultzaileak, horrek zer ondorio dituen, eta nola bihurtu albo-kalteak bertute.
- **Gaiak**
 - o Traductore traditore... eta traktore.
 - o Itzulpen-motak: petoak, erdibideak, intrakranealak.
 - o Itzulpen pragmatikoak.
 - o Sorburu-hizkuntzak.
 - o Itzulpena kazetaritzan: bidegurutzean beti.
 - o Hizkuntza gutxitu batean itzuli: estandarra egina? Irakurleak, estandarrak?
 - o Esapide asko eta asko metaforak dira.
 - o "Espresio zailak dira itzultzen errazenak; itzultzen zailenak, espresio errazak" (Lertxundi, 197)
 - o "Itzuli, itzali gabe" (Gerardo Markuleta, *Oktaedro*-ko hitzaurrea, in Lertxundi, 214)
- **Gonbidatua: Anjel Lertxundi**
Itzuli usu begiak liburu argitaratu berritan, itzulpena hizpide.

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

ALLEN, John: *The BBC News Styleguide*.

http://www2.media.uoa.gr/lectures/linguistic_archives/academic_papers0506/notes/styleseets_3.pdf

ARRIETA UGARTETXEA, Joxe Austin: "*Mailak, mahaiaik*, maiak (eta II)", in *Euskaldunon Egunkaria*, 1997-4-4.

ATXAGA, Bernardo: "Ez da subjektu politikorik sortzen egungo eskoletan", in *Berria*, 2017-01-08.

AUZMENDI AIERBE, Lurdes: "Euskaldun berri / Euskaldun zahar / Euskaldun oso", *Hitzen artean*. Axun Aierbe gogoan, UEU, 2012.

CANO JAUREGI, Harkaitz: *Eztabaidak literaturarekin XXI. mendean* zikloko mahai-ingurua, 2017ko otsaila. [Hemendik berreskuratua: <https://labur.eus/DdydD>]

CASSANY, Daniel: *La cocina de la escritura*, Anagrama, Bartzelona, 1995.

CASSANY, Daniel: *Tras las líneas*, Anagrama, Bartzelona, 2006.

DE OTERO MUÑOZ, Blas: "Poesía y palabra", *Historias fingidas y verdaderas*, Alianza Editorial, Madril, 1980.

ESNAL, Pello: *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/71105.pdf

ESNAL, Pello: *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2011.

http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/75532.pdf

FIGUERAS, Carolina: *Pragmática de la puntuación*, Octaedro-EUB, Bartzelona, 2001.

GARZIA GARMENDIA, Juan: *Esaldiaren antolaera. Funtzio informatiboak gako*, EHU, Leioa, 2015.

GARZIA GARMENDIA, Juan: "Egitea da kontua, garrantzi ikaragarria balu bezala", in 111 Akademia blogean.

[<http://www.111akademia.eus/111-aldizkaria/erreportajeak/2015/07/27/juan-garzia-garmendia-egitea-da-kontua-garrantzi-ikaragarria-balu-bezala-2/>]

GARZIA GARMENDIA, Juan: *Joskera lantegi*, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, Gasteiz, 1997.

GARZIA GARMENDIA, Juan: *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2014.

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/PUNTUAZIOA.pdf

IZAGIRRE, KOLDO: *Autopsiarako frogak*. Susa.

LERTXUNDI ESNAL, Anjel: *Demagun ehun urte barru. Hizkuntza gutxitu bateko idazle*, EIZIE, Donostia, 2017.

MITXELENA ELISSALT, Koldo: "Ortografia", in *Euskera* 23 (1968). 203-269.

NUÑEZ LADEVEZE, Luis: *Teoría y práctica de la construcción del texto*, Ariel, Bartzelona, 1993.

PINKER, Steven: *El sentido del estilo*. Capitán Swing, Madril, 2019.

POMPEU FABRA UNIBERTSITATEA: *Llibre d'estil*, UPF, Bartzelona, 1996.

<http://www.upf.edu/leupf/>

SANGINÉS SAIZ, Gemma: "Kontsumitzaile baldintzatuak", in *Berria*, 2018-04-01.

SARASOLA ERRAZKIN, Ibon: *Bitakora kaiera*, Erein, Donostia, 2016.

TANQUEIRO, Helena: "Sobre la autotraducción de referentes culturales en el texto original: la autotraducción explícita y la autotraducción *in mente*", in Xose Manuel Dasilva y Helena Tanqueiro, *Aproximaciones a la autotraducción*, Editorial Academia del Hispanismo, Vigo, 2011.

THE GUARDIAN: *The Guardian and Observer style guide*.

<http://www.theguardian.com/guardian-observer-style-guide-a>

VILLASANTE KORTABITARTE, Luis: *Hacia la lengua literaria común*, Luis Eleizalde bilduma, 1. liburukia, Editorial Franciscana Aranzazu, Oñati, 1970.

VILLASANTE KORTABITARTE, Luis: *Euskararen auziaz*, Luis Eleizalde bilduma, 9. liburukia, Gráficas Lizarra, Lizarra, 1988.

ZENBAITEN ARTEAN: *El sexe de la notícia. Reflexions sobre el gènere a la informació i recomanacions d'estil*, Bartzelonako Diputazioa, Bartzelona, 1999.

ZUAZO ZELAIETA, Koldo: *Euskara batua. Ezina ekinez egina*. Elkar, Donostia, 2005.

ZUAZO, Koldo: *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, Irun, 2000.

Ariketetan erabilitakoak:

Herman Melvilleren *Moby Dick*.

Tolstoiren *Anna Karenina*.

Bernardo Atxagaren *Obabakoak*.

Bagdadeko morroia; *Dayoub*, *Bagdadeko morroia* (Bernardo Atxagaren bertsioa, Jean Coctearen bertsioaren gaztelaniazko itzulpena; Julio Córdazarren bertsioa).

Ambrose Bierceren *Deabruaren hiztegia*.

Joseba Sarrionandiaren *Hitzen ondoeza*.